



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGÍA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

# PLAN ESTRATEGIKOA 2017 - 2020

[www.ehu.es/ztf-fct](http://www.ehu.es/ztf-fct)







Fakultateko Batzarrean onartua 2017ko uztailaren 11n



Sarrera	7
Metodologia	7
Eginkizuna	7
AMIA analisia	8
Ikuspegia	11
Estrategia	12
Balioak	17
Mapa estrategikoa	18
Aginte taula estrategikoa	20
ERANSKINAK	27
I. ERANSKINA: Dekanotza taldea eta laguntza-taldeak	29
II. ERANSKINA: AMIA analisirako gidak	31
III. ERANSKINA: Terminoen glosarioa	38



## SARRERA

Agiri hau UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatearen (aurrerantzean ZTF-FCT) 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoa da.

Bertan ikastegiaren inguruko hausnarketa estrategikoa egiteko zer prozesuri jarraitu zaion deskribatu dugu, eta baita ondoz ondoko etapetan zer ondorio atera dugun ere.

ZTF-FCTak aldi estrategiko horretan erdietsi nahi dituen helburuak bildu ditugu, eta horiekin batera helburuok betetzeko egokien deritzegun estrategiak, ekintzak eta helburuak zeintzuk diren zehaztu dugu. Orobat, argi eta garbi adierazi dugu ikastegiak zein aurrerapen bideri heldu nahi dion, eta ikasleei, komunitate zientifikoari, lan munduari, unibertsitate-komunitateari eta gizarteari funtsezko aurrerapena ekarriko dioten arloak nabarmendu ditugu.

Hausnarketa estrategikoa ZTF-FCTko dekanotza taldearen zuzendaritzapean egin dugu eta bertan ikastegiko interes taldeetako ordezkariak hartu dute parte, I. eranskinean zehaztu bezala. 33 pertsonak hainbat taldetan banatuta (ikasleak, AZLak eta IRIak) fakultateak une honetan bizi duen momentuaren inguruan eta epe ertainerako perspektibaren inguruan eztabaidatu eta hausnartu zuten. Era berean, ikastegitik kanpoko 10 pertsonaren laguntza izan genuen, eta beren ikuspegia emateaz gain, fakultatearen etorkizuna hobetzeko ideiak ere eman zituzten. Dekanotza taldeak ZTF-FCTaren izenean eskerrak eman nahi dizkie aipatutako laguntza-taldeak osatu dituzten pertsonen beren laguntza ordainezinatik.

## METODOLOGIA

Hona hemen hausnarketa estrategikoaren faseak:

1. ZTF-FCTaren eginkizuna berraztertzea
2. AMIA analisia
3. 2020rako ikuspegia
4. Estrategien definizioa
5. Jardueren definizioa
6. ZTF-FCTaren balioak berraztertzea
7. Aginte-taula estrategikoa

Jarraian fase horietako bakoitza zehaztuko dugu; hain zuzen ere, erabilitako sistematika eta ateratako ondorioak.

## EGINKIZUNA

Hausnarketa estrategikoaren lehenengo etapan ZTF-FCTaren eginkizuna berraztertu eta eguneratu genuen. Horretarako, ondorengo puntuak aztertu genituen:

- Fakultatearen izateko arrazoia
- Egiten dituen jarduerak
- Helburu dituen bezeroak
- Alderdi bereizgarriak

Dekanotza taldea aipatutako puntuak aztertuz joan zen, eta ondorioetan Fakultatearen ezaugarri nagusiak eta bereizgarriak integratu zituen. Hausnarketa horren ondorio gisa, eginkizuna eguneratu genuen eta honela jasota geratu zen:

## Eginkizuna

Zientzia eta Teknologia Fakultatea-Facultad de Ciencia y Tecnología UPV/EHUko zentro bat da eta bere eginkizuna zientzia eta teknologia arloetan ezagutza sortzea, garatzea eta zabaltzea da. Bere erantzukizuna da espiritu kritikoa duten zientzialariei eta profesionaleri erabateko prestakuntza ematea. Bere kudeaketaren oinarria dira irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren berrikuntza eta zerbitzatzen duen gizartearen premiei erantzutea.

## AMIA ANALISIA

Bigarren etapan ZTF-FCTaren barne egoera eta ingurunea ongien deskribatzen dituzten ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatu genituen, oso garrantzitsuak baitira Plan Estrategikoa prestatzeko.

AMIA analisiak funtsezko bi bloke ditu: kanpo analisia eta barne analisia.

Kanpo analisia: Planaren indarraldian ikastegiak izan ditzakeen mehatxuak eta aukerak identifikatzean datza.

Biak kanpo faktoreak dira, eta Planeko helburuak betetzerakoan onerako edo txarrerako baldintzatu dezakete.

Analisi hori egiteko dekanotza taldeak ikastegitik kanpoko 10 pertsonaren laguntza izan zuen, hainbat sektoreren ordezkari gisa: unibertsitatea, enpresak, teknologia-zentroak eta erakundeak.

Ondoko gaiak aztertu zituzten:

- Lehia
- Ikasle izan daitezkeenak
- Lan-ingurunea
- Unibertsitateko administrazio-ingurunea
- Gizarte-ingurunea
- Irakaskuntza-arloa
- Ikerketa-arloa

Barne analisia: ZTF-FCTaren Indarrak eta Ahuleziak identifikatzean datza. Ikastegiaren errealitatea deskribatzen dute eta ikuspegi estrategikotik aztertu behar dira.

Barne analisia 33 pertsonak egin zuten, hiru lantaldetan banatuta eta honako sektore hauen ordezkari gisa: ikasleak, irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Honako eremu hauek aztertu zituzten:

- Irakaskuntza
- Ikerketa
- Antolaketa eta kudeaketa
- Instalazioak eta zerbitzuak
- Fakultateko integrazioa



Laguntza-talde horiek egindako ekarpenak oso baliotsuak izan ziren bai barne analisirako, bai kanpo analisirako, eta dekanotza taldeari AMIA analisi osoago eta errealitateari egokituago bat egiteko aukera eman zioten.

AMIA analisia egiteko, aztertu beharreko eremuak xehetasun handiagoko ataletan banatzen zituzten gida metodologikoak erabili ziren, gaia ulertzen laguntzeko eta hausnarketa bideratzeko. Gida horiek II. eranskinean aurki daitezke.

Ekarpenak aztertu eta lehenetsi ondoren, honako hau izan zen AMIAren emaitza:

## Indarrak

### **Irakaskuntza**

In1: Prestakuntza eskaintzaren kalitatea eta aniztasuna (gradu eta gradu bikoitz ugari)

In2: Aniztasuna eta espezializazioa Master eta Graduondokoetan

In3: Ekintza praktikoen aniztasuna

In4: Irakasleen eskuragarritasun eta hurbiltasun handia ikasleen beharrei erantzuteko

In5: Fakultateko titulazio gehienek eskusibotasuna Euskadin

### **Ikerketa**

In6: Fakultatearen eta bertako langileen prestigio eta aintzatespena ikerketa-zentro gisa

### **Antolakuntza**

In7: Antolaketa edo ikasketekin loturiko gaiei buruz hitz egiteko arduradunak identifikatu eta haiekin kontaktuan jartzeko erraztasuna

In8: Estamentu guztien arteko giro ona

In9: Fakultate dinamikoa

### **Zerbitzu eta instalazioak**

In10: Irakaskuntzarako instalazio egokien eskuragarritasuna

In11: Mugikortasun arazoak dauzkaten pertsonentzako egokitzapenak ikasgeletan

In12: Baliabide informatikoen hornidura ona

### **Kanpo-irudia**

In13: Fakultate serio eta oso konplexua, oso ondo kudeatua

In14: Proiekzio positiboa gizartean

## Ahuleziak

### Irakaskuntza

- Ah1: Kanpoko praktiken eskaintza eskasa gradu batzuetan
- Ah2: Ikasgaiak euskaraz egiteko eskaintza ez da erabatekoa
- Ah3: Ikasgaiak ingelesez egiteko eskaintza eskasa
- Ah4: Sailen arteko koordinazio falta ikasgaiak garatzerako orduan
- Ah5: Harreman gutxi enpresekin eta marketin sistematiko eskasa
- Ah6: Irakaskuntzaren jarraipena egiteko mekanismoak hobetzeko modukoak dira
- Ah7: Irakasgai zehatz batzuetan eduki eta kredituen arteko korrelazio-falta
- Ah8: Irakaskuntza-laboregien okupazio handia
- Ah9: Ordutegiak osatzeko prozesuak hobetzeko modukoak dira
- Ah10: Ikerketa-lanarekin alderatuta, irakaskuntza lana ez da behar beste aitortzen

### Ikerketa

- Ah11: Egindako ikerketaren berri ematea hobetzeko modukoa da

### Antolakuntza

- Ah12: Sailen arteko komunikazio-sistemak hobetzeko modukoak dira
- Ah13: Webguneko informazioa eskuratzeko zailtasuna

### Zerbitzu eta instalazioak

- Ah14: Eraikinaren konfigurazioa dela eta, irisgarritasun zaila
- Ah15: Eraikinaren kontserbazio-egoera hobetzeko modukoa da
- Ah16: Espazio batzuen dimentsio desegokia, besteak beste, jantokiarena, ikasketa-gela kopuruarena, takila kopuruarena...

### Langileak

- Ah17: AZLaren behar estrukturalak

## Mehatxuak

### Lehia

- Me1: Gradu berriak, gradu mistoak eta gradu espezializatuak eskainiz, merkatuen eskaeretara gainontzeko unibertsitateak (Deustu, Mondragon eta Nafarroa) baino hobeto egokitzeko gaitasuna
- Me2: Beste unibertsitateetan esfortzu handiagoa egiten da marketinean eta irakaskuntza-eskaintzaren hedakuntzan

### Lan-ingurunea

- Me3: Lan-merkatuan egoera okerra, bereziki hainbat arlotan
- Me4: Profil profesionalak merkatuaren beharretara egokitzeko zailtasuna

### Enpresa- eta gizarte-ingurunea

- Me5: Unibertsitatearen identifikazio-falta enpresak laguntzen dituen entitate gisa
- Me6: Enpresek ikerketa-arloan dituzten beharretara egokitzeko zailtasuna
- Me7: Enpresa munduak eskatzen duen ikerketaren eta egun unibertsitatean egiten denaren arteko korrelazio eskasa
- Me8: Ikerketaren finantzaketa publikoaren erorketa

## Aukerak

### **Irakaskuntza eta ikasleak**

Au1: Fakultatean hainbat gradu konbinatuko dituzten gradu bikoitzen eskaintza handitzea

Au2: Kanpoko ikasleek gero eta interes handiagoa dute Fakultatean ikasteko

Au3: Elkartruke akademikoko programak sustatzea

### **Ikerketa**

Au4: Proiektzio sozialerako potentziala duten lehen mailako ikerketa-taldeak presentzia

Au5: Ezagutza interdiziplinalak sortzeko potentziala

Au6: Beste instituzio eta erakunde batzuekin kolaborazio proiektuetan parte hartzeko aukera

Au7: Euskal inguru sozioekonomikoak I+G+b-n inbertitzeko beharra lehiakorra izateko

### **Gizarte ingurunea**

Au8: Ikusgaitasun sozial handia duen egresatu-talde baten existentzia

Au9: Ekintza zientifiko-teknologikoak zabaltzeko potentziala

Au10: Gizarteak ezagutza zientifikoarekiko duen interes gero eta handiagoa

## IKUSPEGIA

Ikuspegiak Planaren indarraldia amaitzean nora iritsi nahi dugun zehazten du. Ikuspegi horrek asmo handikoa izan behar du, erronka bat, baina, aldi berean, neurgarria eta gauzatzeko modukoa.

Fakultateak zer emaitza lortu nahi dituen hartzen du oinarritzat, eta baita ikasleek, komunitate zientifikoak, enplegatzaileek, gizarteak eta unibertsitate-komunitateak nola hautematea nahi duen ere.

Ikastegiaren eginkizun berria eta AMIA analititik ateratako ondorioak ikusita, dekanotza taldeak lehentasunezko bost ildo definitu zituen.

### **Ikuspegia**

**Ikasleek** bere kalitateagatik eta bere irakaskuntza-eskaintza zabalagatik ikastegi bikaintzat hartzea.

**Komunitate zientifikoak** bere ikerketa-maila altuagatik eta bere aniztasunagatik aintzat hartzea.

**Enplegatzaileek** arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen formakuntzagatik erreferentzia-zentrotzat hartzea.

**Gizarteak** unibertsitate-ikastegi prestigiotsutzat hartzea.

**Unibertsitate-komunitateak** bere kudeaketa aurreratuagatik eta bere etengabeko hobekuntza espirituagatik erreferentzia-fakultatetzat hartzea.

## ESTRATEGIA

Estrategia Fakultateak Ikuspegiko helburuak erdietsi ahal izateko martxan jartzen dituen neurri multzoari esaten zaio. Horren bidez, ikuspegian adierazitako helburuak gauzatzeko ikastegiko baliabideak, prozesuak eta pertsonak nola mobilizatuko diren zehazten da.

Ikuspegiak ZER adierazten du, eta estrategiak, berriz, NOLA.

Ikuspegiko helburuak betetzeko, ZTF-FCTko dekanotza taldeak zenbait helburu estrategiko zehaztu ditu, honako lau ardatzetan multzokatuta:

1. Irakaskuntza.
2. Ikerketa.
3. Pertsonak.
4. Kudeaketa, berrikuntza eta erantzukizun soziala.

Era berean, Plana gehiago zehazteko, finkatu egin dira helburu estrategikoak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintzak.

Honako ekintza hauek eraman behar dira aurrera, helburuka:

### 1. Ardatza. Irakaskuntza

Irakaskuntza Fakultatearen eginkizunarekin bat datorren ezinbesteko ardatz estrategiko bat da. Bikaintasunerako hasi dugun bideari jarraitzeko eta AMIA analisiaren emaitzak ikusita, uste dugu garrantzitsua dela formakuntza integrala, ikasleen nazioartekotzea, irakasleen arteko koordinazioa eta graduondokoei emandako laguntza eta hedapena sustatzea.

#### HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
Lehen ikasturtean komunak diren ikasgaiak indartzeko eta ikasleen aurretiazko ezagutzak finkatzeko balioko duten sareko ikastaroak garatzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Besteak beste honako hauek barne hartuko dituen zeharkako gaitasunak lantzeko programa bat diseinatzea: ahozko eta idatzizko komunikazioa, curriculum sortu eta defendatzea, segurtasuna eta higieena lanean, bilaketa bibliografikoa, enpresa eta zentro teknologikoen aurkezpen jardunaldiak...	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza eta Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Hezkuntzarako Lankidetzaren Hitzarmenak (HLH) sustatzea, ikasleek kanpoko praktikak egin ditzaten	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza

<b>HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Ikasleak asebeteko dituzten hautazko irakasgaiak lortzeko lan egitea	Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordetza
Ikastegiko Graduren batean formakuntza duala ezartzeko bideragarritasuna aztertzea	Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordetza
<b>HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Graduko ibilbideak ingelesez egiteko azterketa bat sustatzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
Elkartruke akademiko batek dakartzan esperientziei buruzko jardunaldiak antolatzea, horretarako elkartruke-programetan parte hartu izan duten ikasleak gonbidatuz	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
<i>Incoming</i> eta <i>outgoing</i> ikasleentzako asebetetasun-inkesta bat prestatzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
Nazioarteko titulazio bikoitzekin hitzarmenak sinatzeko aukerak aztertzea	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko Dekanordetza
<b>HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
4. mailako ikasleei inkesta presentzial bat egitea beren gradu koordinazioa baloratu dezaten	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Hobekuntza-talde bat sortzea irakasleen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egin ditzan	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Gradu bakoitzeko espazio birtual bat sortzea ( <i>GordeTalde</i> ) koordinazio-ebidentziak gorde daitezen	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
<b>HE.1.4. Graduondoko formakuntza eskaintza lagundu eta hedatzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
ZTF-FCTak eskaintzen dituen berezko tituluak eta masterrak ezagutzera emateko jardunaldiak antolatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Berezko tituluak, masterrak eta graduondoko beste formakuntza batzuk garatzeko erraztasunak ematea	Dekanotza taldea



## 2. Ardatza. Ikerketa

Ikerketa lehenetsuneko ardatza da Fakultatearentzat. Ikerketa-taldeen arteko harremanak hobetzeko eta ikerketak hedatzeko beharra dagoela identifikatu da.

### HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
Fitxa bat sortzea ikastegiko ikerketarako baliabideen inbentario bat izateko	Ekonomiako eta Giza Baliabideetako Dekanordetza
Fakultateko ikerketa-baliabideak bilduko duen sareko gida bat argitaratzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza

### HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea

Ekintzak	Arduradunak
Ikerketa-taldeen arteko topaketak programatzea urtero	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza eta Ekonomiako eta Giza Baliabideetako Dekanordetza
Fakultateko ikerketa-ildoak beste erakunde batzuetan hedatzea eta ikerketa arloan interes komuneko gaiei buruzko bilera mistoak sustatzea	Ekonomiako eta Giza Baliabideetako Dekanordetza

### HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea

Ekintzak	Arduradunak
Ikerketa-taldeek antolatzen dituzten ekintzen hedapena handitzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Ikastegiko azpiegiturak ikerketa-ekintzak egiteko uztea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza
Fakultateko ikerketa-laboregietako segurtasuna zaintzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza

## 3. Ardatza. Pertsonak

IRIak, AZLak eta ikasleak ezinbestekoak dira finkatutako ikuspegia errealitate bihurtzeko. Horrenbestez, uste dugu oso garrantzitsua dela horien guztien asebetetasuna, formakuntza eta ikastegiko bizitzan duten parte-hartzea hobetzea.

<b>HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
AZL/IRI berriei lanean hastea errazteko harrera-eskuliburu bat editatzea	Administrazio burua
Langile berriei harrera-prozesuari buruzko inkesta bat egitea	Administrazio burua
Ikastegiko langile eta ikasleen aintzatespenerako protokoloa berrikustea	Dekanotza taldea
<b>HE.3.2. AZL/IRIaren parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
Langileek ikastegiaren hezkuntza-programarekiko duten inplikazioaren garrantziaz kontzientziazatzea eta programa horretako parte direlako sentimendua azpimarratzea	Dekanotza taldea
Docentiaz Programa hedatzeko jardunaldiak antolatzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
<b>HE.3.3. AZL/IRIaren garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
AZL/IRIaren garapen profesionalerako tresnak identifikatzea	Dekanotza taldea
Irakaskuntzan eta kudeaketan aplikatutako IKTei buruzko tailerrak antolatzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
<b>HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
BAT programa sustatzea, horrela ikasle berrien unibertsitate-bizitzaren hasiera errazteko	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Ikasleek egiten dituzten izapide administratiboen itxaronaldia optimizatzeko aukerak aztertzea	Administrazio burua
Ikastegiko instalazioak hobetzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza

### HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea

Ekintzak	Arduradunak
Ikasle Kontseiluaren eta beste ikasle-elkarte batzuen parte-hartzea sustatzea	Ikasleen Dekanordetza eta Idazkari Akademikoa
Ikasleen ordezkariekin aldi bereko bilerak antolatzea	Ikasleen Dekanordetza eta Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordetza

## 4. Ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala

Ardatz honek sendotu egiten ditu gure fakultatearen kudeaketa hobetzeko, irakasleen berrikuntza sustatzeko eta erantzukizun sozialari erreparatzeko ildo nagusiak.

Honako hauek dira eremu honetako helburu eta ekintzak:

### HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IRIaren parte-hartzea sustatuz

Ekintzak	Arduradunak
IRIak hezkuntza-berrikuntza ekintzetan parte har dezan laguntza-deialdi bat sortzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza
Irakaskuntzan erabilitako doako baliabide birtualen erabilera aztertzea (laborategi birtualak...)	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza

### HE.4.2. Benchmarkinga sustatzea beste ikastegi batzuekin

Ekintzak	Arduradunak
Fakultatearen intereseko diren beste ikastegi batzuen kudeaketa- eta berrikuntza-esperientziak aztertzea	Dekanotza taldea

### HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan

Ekintzak	Arduradunak
Ikastegiko kudeaketa integratuko sisteman urtero hobekuntzak eta aurrerapenak txertatzea	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza eta Administrazio burua

### HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan

Ekintzak	Arduradunak
Prozeduren berrikuspenean IRI/AZLak gehitzea	Dekanotza taldea
Kudeaketa sistemako adierazleen tendentziak berrikustea maximoak eta minimoak egoera errealari egokitzeko	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordetza

### HE.4.4. Erantzukizun Sozialek ekintzak sustatzea

Ekintzak	Arduradunak
Fakultateko etika-eskuliburu bat sortzea	Dekanotza taldea
Berdintasun Batzordea sustatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Egin beharreko ingurugiro-hobekuntzak planifikatzea	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordetza

### HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean

Ekintzak	Arduradunak
Fakultateko kideek egindako ekintzak hedatzea hainbat euskarriren bitartez	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza
Komunikazio-kanal berriak aintzat hartuko dituen hedakuntza-plan bat diseinatzea	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza

## BALIOAK

Hausnarketa estrategikoaren hurrengo urratsa ikastegiko balioak berrikustea izan zen.

Erakunde orok ditu bereizten eta bakar egiten duten ezaugarri batzuk. Bere portaerak, eguneroko jokabideak edo gainditu beharreko egoeretan hartzen dituen erabakiek erakundearen eta erakundea osatzen duten pertsonen izenean dauden printzipio eta sinesmen batzuei erantzuten diete.

Ziklo estrategiko bakoitzean zenbait balio bultzatu behar ditu erakundeak nahi den noranzkoan aurrera egin dezan.

Balio horiek berenganatu egin behar dituzte Fakultatea osatzen duten pertsonak, horiei baitagokie planifikatutako ekintzak ezartzea.

Helburu horrekin, proposatutako eginkizuna, ikuspegia eta estrategia ikusita, ZTF-FCTko dekanotza taldeak plan hau aurrera eramateko sustatu behar dituen balioak aztertu eta eguneratu zituen.

Horretarako, aurreko plan estrategikoan ageri ziren balioak aztertu zituen, eta zegokion hausnarketa egin eta gero, ziklo estrategiko honetarako egokien iritzi zituenak aukeratu zituen. Hona hemen aukeratutako balioak:


- **Konpromisoa eta erantzukizuna:** betebeharrak bere gain hartzeko prest egotea eta horiek betetzea, egiten edo erabakitzen denari arreta emanez.
- **Malgutasuna eta aldaketara egokitzeko gaitasuna:** behar berriei erantzutearren beste eginkizun batzuetan aritzeko, ohiturak aldatzeko edo prozedurak aldatzeko prest egotea.
- **Berrikuntzaren izenean ekimena, jakin-mina eta bilatzeko gaitasuna:** gauza berriak asmatu edo aurkitu, gauzatu eta errealitatea eraldatzeko erabili nahi izatea eta horretarako prest egotea.
- **Lankidetzeta eta koordinazioa:** helburu bera erdiestearren beste pertsona edo talde batzuekin elkarlanean aritu nahi izatea eta horretarako prest egotea, eraginkortasun eta ordena irizpideak aplikatuta.
- **Komunikatzeko borondatea eta gardentasuna:** gainerakoekin informazioa eta ezagutza konfiantza osoan eta zinez nahi izatea.
- **Kide izatearen sentimendua:** erakundeari nahitasuna hartzea, bere interesak defendatzea eta erakundearen beraren zein ekintzen eta lorpenen kide izateaz harro egotea.

## MAPA ESTRATEGIKOA

Mapa estrategikoak ikuspegiaren eta strategiaren arteko erlazioa irudikatzen du, laburbilduta; alegia, ZER eta NOLA uztartzen ditu. Ikuspegiko helburuak zer helburu sustatzailearen bidez erdietsi daitezkeen jasotzen du, irudi bidez.

Ondorengo grafikoak ikuspegiaren eta helburu estrategikoen arteko erlazioa irudikatzen du. Helburu estrategiko bakoitza zirkulu baten bidez adierazi da. Barnealdean helburuaren kodea ageri da, eta bertatik helburu estrategikoak bultzatu beharreko ikuspegira doazen lerroak ateratzen dira.





1. Grafiko. Ikuspegiaren eta helburu estrategikoen arteko erlazioa

Honako taula honetan aurreko grafikoko informazioa (helburu estrategiko eta ikuspegiaren arteko erlazioa) modu eskematikoan adierazita dago.

HELURU ESTRATEGIKOA		IKUSPEGIAREN ILDOA				
		Ikasleek bere kalitateagatik eta bere irakaskuntza eskaintza zabalagatik ikastegi bikaintzat hartzea	Komunitate zientifikoak bere ikerketa maila altuagatik eta bere aniztasunagatik aintzat hartzea	Unibertsitate-komunitateak bere kudeaketa aurreratuagatik eta bere etengabeko hobekuntza espirtuagatik erreferentziako fakultatetzat hartzea	Enplegatzaileek arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen formakuntzagatik erreferentziako zentrotzat hartzea	Gizarteak unibertsitate ikastegi prestigioitsutzat hartzea
1. ARDATZA. IRAKASKUNTZA	HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	●			●	●
	HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	●				
	HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	●		●		
	HE.1.4. Graduondoko eskaintza laguntzea eta hedatzea				●	●
2. ARDATZA. IKERKETA	HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutza hobetzea		●			
	HE.2.2. Ikerketa taldeen arteko harremana laguntzea		●		●	●
	HE.2.3. Ikerketa taldeak laguntzea		●			
3. ARDATZA. PERTSONAK	HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea			●		
	HE.3.2. IRI/AZLaren parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintza eta proiektuetan			●		
	HE.3.3. IRI/AZLaren garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea			●		
	HE.3.4. Ikasleei eskaintako zerbitzuak hobetzea	●				
4. ARDATZA. KUDEAKETA, BERRIKUNTZA ETA ERANTZUKIZUN SOZIALA	HE.4.1. Hezkuntza berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea, IRIaren parte-hartzea sustatuz			●		
	HE.4.2. <i>Benchmarking</i> a sustatzea beste ikastegi batzuekin			●		
	HE.4.3. Kudeaketa sistema aurreratu inplementatzeko prozesuan aurrerapausoak ematea			●		
	HE.4.4. Erantzukizun sozialeko ekintzak sustatzea					●
	HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartearen		●			●

2. Taula. Ikuspegiaren eta helburu estrategikoen arteko erlazioa

## AGINTE-TAULA ESTRATEGIKOA

Helburu estrategikoen eta ikuspegiak erakundearen xedeak jartzen dituzte agerian. Adierazleek erdietsi nahi diren jomugak *a priori* proposatzen laguntzen dute zenbaki bidez, eta, ondoren, emaitzen arabera, proposatutako helburuak zein punturaino bete diren ebaluatzen aukera emate dute.

Aginte taula estrategikoak ikuspegiko helburuak eta helburu estrategikoak, eta horiei loturiko adierazleak eta jomugak jasotzen ditu, modu ordenatuan.

Aipatzekoa da aginte-taula estrategikoan agertzen diren adierazleak ez direla erakundeak kudeatu beharreko bakarrak; aitzitik, 2017-2020rako ikuspegiarantz Plan Estrategikoan marraztutako bidean Fakultatearen aurrerakada kontrolatzea, zuzentzea eta ebaluatzea ahalbidetzen dute.

Hona hemen ZTF-FCTaren aginte-taula estrategikoa. Ikuspegiaren ildo eta helburu estrategikoei lotuta lortu beharreko jomugei dagokie.

Ikuspegiaren ildoei buruzko aginte-taula estrategikoaren kasuan, 2017-18 ikasturtean lortu beharreko jomugak zehazten dira, ikasturte akademiko hori amaitzean, lortutako emaitzak aztertu eta hurrengo ikasturterako jomuga berriak finkatuko baitira.

Ikuspegiaren Ildoak	Adierazleak	Jomugak 17-18
<b>Ikasleek</b> bere kalitateagatik eta bere irakaskuntza- eskaintza zabalagatik ikastegi bikaintzat hartze	Eskainitako plazetatik zenbat bete diren %tan	%100
	Ikastegiko gradueta sartzen diren Batxillergoko ikasleen mozketa-notaren tartea	[6-12,5]
	Ikasleek irakaskuntzarekiko duten asebetetze maila (UPV/EHUko HELAZ zerbitzuaren inkestaren bidez neurtua)	3,9 /5
	Batxilergotik datozen ikasle berrien bataz besteko nota	9,5 /14
	Elkartruke akademikoko hitzarmen kopurua	100
	Hezkuntzarako Lankidetza Hitzarmen kopurua (HLH)	170
	<b>Komunitate zientifikoak</b> bere ikerketa-maila altuagatik eta bere aniztasunagatik aintzat hartzea	Deialdi lehiakorretako ikerketa proiektuen kopurua
Defendaturiko tesi kopurua urteko		100
Ikastegiko IRlek antolatutako ekitaldi zientifiko kopurua urteko		8
<b>Enplegatzaileek</b> arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen formakuntzagatik erreferentzia-zentrotzat hartzea	Enpresetan eskainitako praktika kopurua	250
	Ikastegiarekin Lankidetza Hitzarmenak dituzten entitateen kopurua	10

Ikuspegiaren Ildoak	Adierazleak	Jomugak 17-18
<b>Enplegatzailerik</b> arlo zientifiko eta teknologikoan ematen duen formakuntzazatik erreferentzia-zentrotzat hartzea	Enpresa eta erakundeen asebetetze maila ikastegiko egresatuen profilarikiko (LHLak edo ikastegiarekin batera Gradu Amaierako Lanak zuzentzen dituzte enpresei egindako inkestaren bidez neurtua)	4/5
<b>Unibertsitate-komunitateak</b> bere kudeaketa aurreratuazatik eta bere etengabeko hobekuntza espirituazatik erreferentzia-fakultatezkat hartzea	Beste ikastegi batzuekin hitzartutako lankidetzak kopurua (bisitak, esperientzia trukeak, hitzaldietara gonbita...)	12
	AZL/IRIei egindako Asebetetze Inkestaren emaitza	4/6
	Hezkuntza berrikuntzako programetan (UIPRE, HBP...) parte hartzen duten IRI kopurua	120
	Ikastegiko kudeaketa hobetzeko ezarritako ekintza kopurua	6
<b>Gizarteak</b> unibertsitate-ikastegi prestigiotsutzat hartzea	Agerraldi positibo kopurua komunikabideetan	15
	Batxilergotik datozen ikasle berrietatik 11 baino nota altuagoa duen ikasle kopurua %ta	58
	Fakultateak gizarte hedakuntzarako zenbat jardueretan parte hartzen duen (kulturari, berdintasunari, jasagarritasunari, ingurumenari, konpromiso sozialari eta abarri buruzko proiektuak)	10

Jarraian ageri dira ezarritako helburu estrategikoak, adierazleak eta 2020rako lortu beharreko xedeak (aldi estrategiko honen amaierarako), emaitza ikasturte akademikokoa dela adierazten den kasuetan salbu.

	Helburu Estrategikoa	Adierazleak	Jomugak 2020
<b>1. Ardatza. Irakaskuntza</b>	HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	Eskainitako Curriculum kanpoko ikastaro kopuruaren eskaintza	5/ikasturte
		<%55eko errendimendu tasa duten gradu kopurua	0
		Eskainitako kanpoko praktika kopurua	250/ikasturte
		Kanpoko praktikak egiten dituzten ikasle kopurua	170/ikasturte
		Formakuntza duala dute gradu kopurua	1
	HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	Elkartruke akademikoko hitzarmen kopurua	155
		Nazioarteko titulazio bikoitz kopurua	4
		<i>Outgoing</i> ikasle kopurua	100
		<i>Incoming</i> ikasle kopurua	50
		<i>Buddy</i> programaren mentore kopurua	50
		Ingelesez egin daitezkeen ikasgai kopurua	30
	HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	EFC ikasgai kopurua	40
		Kurtsoko ikasgela birtualen ratioa	0,4
		Koordinazioaren balorazioa diseinatzeke dagoen inkestaren arabera	3/5
	HE.1.4. Graduondoko formakuntza eskaintza lagundu eta hedatzea	Koordinazioaren ebidentziak gordetzeko espazio birtuala duten gradu kopurua	8
		Graduondoko formakuntzarako jardueren kopurua (titulazio propioak, masterrak...)	20/ikasturte
		Hedakuntza-ekintza kopurua	6/ikasturte



	Helburu Estrategikoa	Adierazleak	Jomugak 2020
<b>2. Ardatza. Ikerkuntza</b>	HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea	Gidan biltzen diren ikerketa taldeen %	%100
	HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea	Topaketetan parte hartzen duten taldeen %	>%50
	HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea	Ikerketa taldeak laguntzeko ikastegiaren urteko aurrekontuaren %	%2
<b>3. Ardatza. Pertsonak</b>	HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea	Harrera ekitaldiaren inguruko asebetetze maila neurtzeko inkestaren emaitza	4/6
		Doazen pertsonen %	%95
	HE.3.2. AZL/IRIen parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintza eta proiektuetan	Graduazio ekitaldian parte hartzen dute IRI/AZL kopurua	80
		Koordinatzaile kopurua (GIBetako eta ikastegietako komisioetako kideak)	120
		Dibulgazio/erakarpen ekintza kopurua	36/ikasturte
		UOAn, ate irekietan... parte hartzen duen IRI/AZL kopurua	50
		Docentiazan bitartez ebaluatutako irakasleen %	%35
	HE.3.3. AZL/IRIen garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea	Ikastegiak bultzatutako formakuntza-tailer kopurua	4/ikasturte
		Tailer eta formakuntza ikastaroetako parte-hartzaile kopurua	100
	HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea	Deituta dauden bileretara bertaratzen diren kurtsoko delegatuen %	%90
Hobekuntzei zuzendutako aurrekontuaren %		>%50	

	Helburu Estrategikoa	Adierazleak	Jomugak 2020
<b>4. Areatza. Kudeaketa, berrikuntza eta erantzukizun soziala</b>	HE.4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IRlen parte-hartzea sustatuz	Hezkuntza berrikuntzarako proiektu kopurua	8/deialdi
		Hezkuntza berrikuntzarako proiektuetan parte hartzen duten IRI kopurua	40/ikasturte
		Hezkuntza berrikuntzarako ekintzetako parte-hartzaile kopurua	20
	HE.4.2. <i>Benchmarking</i> a sustatzea beste ikastegi batzuekin	Beste ikastegi batzuetako zuzendaritza taldeekin izandako bilerak ikasturteko	7/ikasturte
	HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema martxan jartzeko prozesuan	Kudeaketa sistemaren akreditazio kopurua: Akreditazio Instituzionala, BIKAIN...	2
	HE.4.4. Erantzukizun Sozialeko ekintzak sustatzea	Fakultateak antolatutako erantzukizun sozialeko ekintza	12/ikasturte
		Ingurugiroa hobetzeko ekintza kopurua	6
	HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean	Agerraldi kopurua hedabideetan	100/ikasturte
		Dibulgazio zientifikorako ekintza kopurua	9/ikasturte



## ERANSKINAK



## I. ERANSKINA: Dekanotza taldea eta laguntza-taldeak

Dekanotza taldea	
Esther Domínguez	Dekanoa
Aitor Payros	Idazkari akademikoa
Rosa Alonso	Ekonomiako eta Giza Baliabideetako Dekanordea
M <sup>a</sup> Asun García	Kalitate eta Berrikuntzako Dekanordea
Maren Ortiz	Euskara eta Nazioarteko Harremanen arloko dekanordea
Monika Ortueta	Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako dekanordea
Ibon Sagastabeitia	Irakaskuntzaren Plangintzarako Dekanordea
Teresa Serrano	Azpiegituretako, Prebentzioko eta Segurtasuneko Dekanordea
Olatz Zuloaga	Ikasleen Dekanordea
Maike Adame	Administrazio burua

Ikasleak	Maila eta gradua
Andrea Cuesta	4. maila Geologiako Gradua
Aritz Dorronsoro	2. maila Fisikako Gradua
Irene Etxebarria	4. maila Biologiako Gradua
Jon Gabirondo	2. maila Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza
Adhara Gaminde	4. maila Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua
Irati Grande	4. maila Biologiako Gradua
Ainhoa Lasa	2. maila Matematikako Gradua
María Obieta	4. maila Kimikako Gradua
Ane Ortiz de Zarate	2. maila Ingeniaritza Elektronikoko Gradua
Yagoba Parra	4. maila Geologiako Gradua
Lorena Rodero	3. maila Geologiako Gradua
Adrian Ruiz	4. maila Ingeniaritza Kimikoko Gradua
Eneko Serrano	1. maila Biokimikako Gradua
Amaia Yarto	4. maila Bioteknologiako Gradua

AZLak	Lanpostua
Urtzi Akesolo	Laborategiko teknikaria
Aurelia Álvarez	Idazkaritzako bulegoburua
Marian Aparicio	Saileko idazkaria
Ana Blanco	Idazkaritzako administrari laguntzailea
Jorge Díaz	Multimedia teknikaria
Javier Gorjón	Atezain nagusia
Asier Larrañaga	Laborategiko teknikaria
Asun López	ZTFIAZko arduraduna
Montse Ortiz	Saileko idazkaria
Iñaki Ortego	Ikastegiko teknikaria

<b>IRIak</b>	<b>Saila</b>
Aitziber Anakabe	Elektronika saila
José María Arandes	Ingeniaritza Kimikoa
Gotzone Barandika	Kimika ez-organikoa
Gotzon Madariaga	Materia Kondentsatuaren Fisika
Adrian Odriozola	Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia
Miren Josu Omaetxebarria	Biokimika eta Biologia Molekularra
Luis Ortega	Mineralogia eta Petrologia
Aitor Rementeria	Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia
Eduardo Sainz de la Maza	Matematika Aplikatua eta Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa

<b>Kanpokoak</b>	<b>Kargua eta erakundea</b>
Sabin Arana	Preskriptor-eko presidentea eta Ekolux Energyko bazkide sortzailea
Daniel Bengoechea	Padre Andrés de Urdaneta ikastetxeko zuzendaria
Jaione Escribano	Grupo Albor-Cohs-eko Ikerketa Dibisioa
Javier García	Tekniker-en Harreman Instituzionaletako zuzendaria
Alfonso García de Cortázar	Euskadiko Geologoen Elkargo Ofizialeko presidentea
Lorena González	Faes Farmako I+G+b arloko kudeatzailea
Ángela Magaz	Grupo Albor-Cohs-eko zuzendari nagusia
Begoña Pereda	Vitoria-Gasteizeko Udalaren Informazioaren teknologiak saileko burua
Jorge Vicente	Technology Manager Novatia Desarrollos S.L.
Aitor Zurimendi	UNIBASQeko zuzendariondokoa



## II. ERANSKINA: AMIA analisirako gidak

### KANPO ANALISIA: Mehatxuak/Aukerak

Kanpoko laguntza-taldeak Mehatxuak eta Aukerak identifikatzeko erabilitako gidak.

#### Gaia: KA01.- LEHIAKIDEEN AZTERKETA

##### Gairako sarrera

Helburua Fakultatean eragina izan dezaketen Mehatxuak eta Aukerak identifikatzea da, betiere egungo lehiakideek nahiz lehiakide potentzialek egiten dituzten jardueri lotutakoak.

Lehiakide esaten diogu Fakultateak eskaintzen dituen zerbitzu berak edo antzekoak eskaintzen dituzten eta bere eragin-eremuan dauden erakunde guztiei.

##### Analizatu beharreko aspektuak

Egungo lehiakideak:

- Formakuntza- nahiz ikerketa-eskaintzaren kalitatea eta aniztasuna, aintzat hartuta graduak, masterrak, doktoratuak, titulazio propioak eta ikerketa-taldeak
- Merkatuan ezagun egin dituzten elementu bereizgarriak: formakuntza jarraia, prestigioa, hurbiltasuna, lan-merkatuarekiko gertutasuna, ikerketa-produkzioa etab.
- Lehiakideek baliatzen dituzten estrategiak: dibertsifikazioa, espezializazioa, marketina, hitzarmenak beste erakunde batzuekin, etab.

Lehiakide potentzialak:

- Fakultateak eskaintzen dituen irakaskuntza- edo ikerketa-zerbitzuen antzekoak eskaini ditzatekeen elkarte, erakunde edo instituzio publiko edo pribatuak
- Fakultatearen eragin-eremuan dauden beste unibertsitate-campusetako ekintzak
- Irakaskuntza (Fakultateko eremuekin zerikusia duen unibertsitate-irakaskuntza)

#### Gaia: KA02.- LAN-INGURUNEA

##### Gairako sarrera

Fitxa honetan Fakultateari eragin diezaioketen Mehatxuak eta Aukerak identifikatzen dira, betiere lan inguruneari dagokionez.

##### Analizatu beharreko aspektuak

- Erakundeetan sor daitezkeen behar edo aukera berriak, Fakultateak asebetetzen ez dituenak
- Fakultateko etorkizuneko egresatu idealaren profila kontratatuko dutenen ikuspegitik (hizkuntzak menderatzea, zeharkako ezagutzak, etab.)
- Gorakadan edo gainbeheran dauden gai edo ezagutza-eremuak
- Fakultateko egresatu batek lan-merkatuan izan ditzakeen lanpostuak
- Enpresa-ingurunearekin, erakundeekin edo instituzioekin hitzarmenak sinatu edo sinergiak bilatzeko aukerak.

## Gaia: KA03.- IKERKETA-INGURUNEA

### Gairako sarrera

Helburua Fakultatean eragina izan dezaketen Mehatxuak eta Aukerak identifikatzea da, ikerketa-ingurunean espero den eboluzioari lotutakoak.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Enpresa-sareak, komunitate zientifikoak eta gizarteak Fakultateak eragina duen eremuetan dituzten ikerketa eta ezagutza sortzeko beharrak
- Zientzia eta teknologia arloetan enpresa eta erakunde publiko nahiz pribatuak I+G+b-an egiten duten esfortzua
- Erakunde publiko nahiz pribatuak ikerketan eta ikerketatik lortutako emaitzen transferentzia teknologikoan unibertsitatearekin kolaboratzeko duten prestutasuna
- Mezenasgoa eta ikerketak finantzatzeko beste aukera batzuk
- Enpresen eta unibertsitatearen arteko komunikazio-kanalak ikerketen emaitzak aditzera emateko, garapenerako eta berrikuntzarako

## BARNE ANALISIA: Indarrak/Ahuleziak

Barne laguntza-taldeak (IKAS: ikasleak, AZL: Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak eta IRI: Irakasle eta Ikertzaileak) Indarrak eta Ahuleziak identifikatzeko erabilitako gidak.

## Gaia: IKAS01.- FAKULTATEAK BERE IKASLEEI ESKAINTZEN DIZKIEN ZERBITZUAK

### Gairako sarrera

Helburua Fakultateak bere ikasleei eskaintzen dizkien zerbitzu eta produktuen Indarrak eta Ahuleziak identifikatzea da.

Honela sailkatzen ditugu:

- Irakaskuntza arautua
- Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuak, hau da, ikasleei irakaskuntzari probetxu handiagoa ateratzen laguntzeaz gain, beren formakuntza finkatzen laguntzen dutenak: unibertsitatera etorri baino lehenagoko informazioa (besteak beste, ate irekien egunak, unibertsitate orientaziorako azokak), harrera, tutoretzak (irakasleena eta berdinen artekoa, non laugarren mailako ikasleek lehenengo mailakoak laguntzen dituzten), praktikak (ingeniaritza kimikoan laugarren mailan derrigorrezkoak, gainontzeko graduetan hirugarren mailan hasten dira) eta beste unibertsitate batzuekin elkartrukeak (Erasmus, IKUAK...).
- Irakaskuntzari osagarri zaizkion zerbitzuak (dibulgazio jardunaldiak, ekitaldi kulturalak, orientazio programak, lan jardunaldiak, Zientzia azoka, Zientzia astea, hitzaldiak, etab.)
- Administrazio- eta idazkaritza-zerbitzuak (tituluen espedizioa, matrikula, ziurtagiriak, baliozkotzeak, espediente-lekualdaketak, deialdiak aurreratzea, taldez aldatzeko eskaerak, inprimakiak, atezaintza etab.)

## Gaia: IKAS01.- FAKULTATEAK BERE IKASLEEI ESKAINTZEN DIZKIEN ZERBITZUAK

### Analizatu beharreko aspektuak

Irakaskuntza arautua:

- Gradu bikoitzen eskaintza
- Eskaintza eleanitza (gaztelania, euskara eta beste hizkuntza ez ofizial batzuk)

Irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuak:

- Webgunean eskuragarri dagoen zerbitzuei buruzko informazioa
- Praktikak enpresetan egiteko eta beste unibertsitate batzuekin elkartrukeak egiteko eskaintzaren egokitasuna

Irakaskuntzari osagarri zaizkion zerbitzuak:

- Gaien aniztasuna eta egokitasuna
- Ekitaldi programari buruzko informazioa: agenda eta edukia
- Ekitaldietara joateko erraztasuna (ordutegiak, egutegiak, etab.)

Administrazio- eta idazkaritza-zerbitzuak:

- Eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa eta zerbitzu horiekiko eskuragarritasuna
- Jasotako arretaren kalitatea eta izapide administratiboak burutzeko azkartasuna

## Gaia: IKAS02.- IRAKASKUNTZA

### Gairako sarrera

Helburua Fakultateak ematen duen irakaskuntzaren indarrak eta ahuleziak analizatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Irakasleek beren ikasgaiak ematerakoan erakusten duten jakintza, antolaketa eta argitasuna
- Ikasle eta irakaslearen arteko interakzioa (gela barruan nahiz kanpoan)
- Erabilitako baliabide metodologiko eta didaktikoak: liburuak, eskola materiala, ikus-entzunezko baliabideak, ikasgela birtuala, IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak), gomendatutako bibliografia, tailerrak...
- Titulazioarekin lotura duten ikasgaietan adibide argigarriak ematea
- Irakasleek ikuspegi global bat ematea azaldutako gaiei buruz
- Irakasleak ezarritako programaren betetze-maila
- Ebaluazio-sistema

## Gaia: IKAS03.- ANTOLAKETA

### Gairako sarrera

Helburua ikasleekin erlacionatutako antolaketa- eta kudeaketa-gaien indarrak eta ahuleziak analizatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

Eremu akademikoa:

- Ikasleen interesekoa den informazio akademikoa erraztasunez kontsultatzerik dagoen eta informazio hori erabilgarria eta kalitatezkoa izateaz gain, eguneratuta dagoen edo ez (egutegia, ordutegiak, azterketak, kalifikazioak, jakinarazpenak, iragarkiak, etab.)
- Titulazio bakoitzaren baitako koordinazioa, bai ikasgai ezberdinen artean, bai maila ezberdinen artean
- Ordutegien egokitasuna

Kudeaketa:

- Antolaketa edo ikasketekin loturiko gaiei buruz hitz egiteko arduradunak identifikatu eta haiekin kontaktuan jartzeko erraztasuna
- Proposamenak, kekek edo erreklamazioak egiteko aukera eta Fakultateak erantzuteko duen azkartasuna

## Gaia: IKAS04.- INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK

### Gairako sarrera

Helburua instalazio orokorren eta ikasleei eskaintzen zaizkien zerbitzuen Indarrak eta Ahuleziak analizatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Ikastegiaren kontserbazioa eta garbiketa modu orokorrean: komunak, irakaskuntzarako eremuak, eremu komunak, etab.
- Ikasketarako eremuak erabiltzeko erraztasuna
- Komunikazio- eta informazio-bideen egokitasuna: ikasle posta, webgunea, wifia, intraneta, iragarki oholak, pantailak, etab.
- Barne-zerbitzuen kalitatea (takilak, jangela, ikasteko mahaiak, sarrera libreko informatika gela etab.)
- Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako irisgarritasuna
- Erakinen, ekipoen eta instalazioan segurtasuna

## Gaia: IKAS05.- IKASLEEN INTEGRAZIOA FAKULTATEAN

### Gairako sarrera

Helburua Fakultatearekin, helarazten eta sustatzen dituen balioekin, UPV/EHUK duen paperarekin eta gizartearekin orokorrean ikasleak duen identifikazio-mailaren Indarrak eta Ahuleziak identifikatzea da.

## Gaia: IKAS05.- IKASLEEN INTEGRAZIOA FAKULTATEAN

### Analizatu beharreko aspektuak

- ZTF-FCTaren parte sentitzea
- Jasotako formakuntzaren bitartez auto-estimua sendotzea
- Fakultateak unibertsitate-espirtua sustatzea
- Fakultateak kanpora proiektatzen duen irudia
- ZTF-FCTan dauden ikasle-elkarteei buruzko ezagutza eta haietan parte-hartzea
- Ikasle Kontseiluaren balorazioa
- Ikasleek Fakultateko bizitzan duten parte-hartzea

## Gaia: AZL01.- FAKULTATEAREN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

### Gairako sarrera

Helburua AZLarekin erlazionatutako antolakuntza- eta kudeaketa-gaien Indarrak eta Ahuleziak analizatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

Antolaketa:

- Barne-antolaketa eta AZLaren lanen banaketa
- AZLak beharrezko duen informazioa eskuratzea
- AZLak duen formakuntza-eskaintza (eskaintza horren egokitasuna, bertaratzeko erraztasuna...)
- Harrera eta hasierako informazioa Fakultatean eta lanpostu berrian lanean hasteko

Harremanak:

- Fakultateko arduradunei zuzentzeko erraztasuna
- Proposamenak, kekek edo erreklamazioak egiteko aukera eta Fakultateak erantzuteko duen azkartasuna
- Fakultateko beste kolektibo batzuekin duen komunikazio-maila
- Euskarak Fakultatean duen presentzia
- Berdintasunari, jasangarritasunari, konpromiso sozialari eta beste batzuei eskainitako arreta

## Gaia: AZL02.- INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK

### Gairako sarrera

Helburua instalazio orokorren eta AZLak erabiltzen dituen zerbitzuen Indarrak eta Ahuleziak analizatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Ikastegiaren kontserbazioa, garbiketa, segurtasuna eta irisgarritasuna modu orokorrean: komunak, bulegoak, gelak, bilera-gelak, eremu komunak...
- Komunikazio- eta informazio-bideen egokitasuna: posta, webgunea, wifia, intraneta, iragarki oholak, pantailak, etab.
- Baliabide informatikoak: eskuragarritasuna, ekipoa berritzea eta softwarearen eguneratzea

## Gaia: AZL03.- AZL FAKULTATEAN INTEGRATZEA

### Gairako sarrera

Helburua Fakultatearekin, helarazten eta sustatzen dituen balioekin, UPV/EHUK duen paperarekin eta gizartearekin orokorrean AZLak duen identifikazio-mailaren Indarrak eta Ahulezia identifikatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Fakultatearen parte sentitzea
- Fakultateak parte hartzen duen proiektuekiko interesa
- Fakultateak kanpora proiektatzen duen irudia
- AZLak Fakultatearen eskutik jasotzen duen aintzatespena
- AZLaren proiektu eta proposamenak aurrera eramateko jasotako laguntza Fakultatearen eskutik

## Gaia: AZL04.- IRAKASKUNTZA ETA IKERKETA LAGUNTZEA

### Gairako sarrera

Helburua AZLak irakaskuntzan eta ikerketan laguntzeko egiten dituen ekintzen Indarrak eta Ahuleziak identifikatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Zein punturaino dakiten IRIaren ekintzetan zein eremutan lagundu dezaketen
- AZLaren gaitasunen analisia (ezagutza eta trebetasuna) IRIaren ekintzetan laguntzeko

## Gaia: IRI01.- IRAKASKUNTZA

### Gairako sarrera

Helburua Fakultateak ematen duen irakaskuntzaren Indarrak eta Ahuleziak aztertzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Fakultateko Gradu-eskaintza:
  - Emaidza akademikoak: ikasleek lortzen duten formakuntza-maila
  - Eleaniztasun programa
  - Eskuragarri dauden baliabideak: gelak, laborategiak, ekipoak, instalazioak...
  - Ikasleei eskainitako irakaskuntzei laguntzeko zerbitzuak (tutoretzak, praktikak enpresetan, elkartruke akademikoak, formakuntza osagarria...)
  - IRIari eskainitako formakuntza eskaintzak
- Ikasleekiko harremana gela barruan nahiz kanpoan
- Ikasle berrien profila: ikasle bikainak erakartzeko ekintzak eta analisia
- Irakaskuntza-lanaren aintzatespena

## Gaia: IRI02.- IKERKETA

### Gairako sarrera

Helburua Fakultateko ikerketaren Indarrak eta Ahuleziak identifikatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Ikerketan aritzeko erraztasunak: instalazioak eta eskuragarri dauden ekipoak...
- Ikerketaren emaitzak: hedapena, dibulgazioa eta irakaskuntzan duten proiektzioa
- Ikerketan aritzeko jasotako laguntzak

## Gaia: IRI03.- FAKULTATEAREN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

### Gairako sarrera

Helburua IRIarekin erlazionatutako antolaketa- eta kudeaketa-gaien Indarrak eta Ahuleziak analizatzea da

### Analizatu beharreko aspektuak

Eremu akademikoa:

- Eskola egutegiaren, ordutegiaren eta gelen kudeaketaren antolaketa
- Informazio akademikoa eskuratzeko erraztasuna
- Titulazio ezberdinen arteko eta titulazio bakoitzaren baitako koordinazioa, bai ikasgai ezberdinen artean, bai maila ezberdinen artean

Harremanak:

- Fakultateko arduradunekin harremanetan jartzeko erraztasuna
- Proposamenak, kekek edo erreklamazioak egiteko aukera eta Fakultateak erantzuteko duen azkartasuna
- Fakultateko kolektibo ezberdinen arteko komunikazio-maila
- Euskarak fakultatean duen presentzia
- Berdintasunari, jasagarritasunari, konpromiso sozialari eta beste batzuei eskainitako arreta

## Gaia: IRI04.- INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK

### Gairako sarrera

Helburua instalazio orokorren eta IRIak erabiltzen dituen zerbitzuen Indarrak eta Ahuleziak analizatzea da.

### Analizatu beharreko aspektuak

- Ikastegiaren kontserbazioa, garbiketa, segurtasuna eta irisgarritasuna modu orokorrean: komunak, bulegoak, gelak, bilera-gelak, eremu komunak etab.
- Komunikazio- eta informazio-bideen egokitasuna: posta, webgunea, wifia, intraneta, iragarki oholak, pantailak, etab.
- Baliabide informatikoak: eskuragarritasuna, ekipoak berritzea eta softwarearen eguneratzea
- Barne-zerbitzuen kalitatea (erreprografia, idazkaritza, atezaintza, erregistroa, administrazioa etab.)



## Gaia: IRI05.- IRI FAKULTATEAN INTEGRATZEA

### Gairako sarrera

Helburua IRIak Fakultatearekin, helarazten eta sustatzen dituen balioekin, UPV/EHUK duen paperarekin eta gizartearekin orokorrean duen identifikazio mailaren indarrak eta ahulezia identifikatzea da

### Analizatu beharreko aspektuak

- Fakultatearen parte sentitzea
- Fakultateak parte hartzen duen proiektuekiko interesa
- Fakultateak kanpora proiektatzen duen irudia
- IRIak Fakultatearen eskutik jasotzen duen aintzatespena
- IRIaren proiektu eta proposamenak aurrera eramateko jasotako laguntza Fakultatearen eskutik

## III. ERANSKINA. Terminoen glosarioa

Terminoak	Definizioa
<b>AZL</b>	Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak
<b>BIKAIN</b>	Eusko Jaurlaritzak emandako Euskararen Kalitate Ziurtagiria
<b>BAT</b>	Berdinen arteko Tutoretza Plana
<b>EFC</b>	English Friendly Courses
<b>GIB</b>	Graduko Ikasketa Batzordea
<b>HBP</b>	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak
<b>HELAZ</b>	Hezkuntzarako Laguntzara Zerbitzua
<b>HLH</b>	Hezkuntza Lankidetzako Hitzarmena
<b>IKT</b>	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
<b>IRI</b>	Irakasle eta Ikertzaileak
<b>UIPRE</b>	Unibertsitateko Irakasleen irakas-prestakuntza
<b>UOA</b>	Unibertsitate Orientaziorako Azoka
<b>ZTFIAZ</b>	Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzua